Urnietako udala

Urnietako Udala

Zk./ Nº 2023/7

Data / Fecha 2023/09/25

TGB akta / JGL akta

**Espte zk** nº expte:
**2023ITGB0007**

| TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURAREN AKTA | ACTA DE LA SESION DE JUNTA DE GOBIERNO LOCAL |
|---|---|
| **Bilera-mota:** ohiko | **Tipo de sesión:** ordinaria |
| **Bilera-data:** 2023ko uztailaren 27a | **Fecha de la sesión:** 27 de julio de 2023 |
| **Ordua:** 18:30etan | **Hora:** 18:30 horas |
| **Deialdia:**Lehenengoa | **Convocatoria:** Primera |
| **Tokia:** Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa | **Lugar:** Salón de Plenos del Ayuntamiento |
| **Akta onartu den bileraren data:** | **Fecha de la sesión de aprobación del acta:** |

| **Bertaratutakoak:** | **Asistentes:** |
|---|---|
| **Alkatea** | **Alcalde** |
| Jorge Segurado Iriondo (EAJ-PNV) | Jorge Segurado Iriondo (EAJ-PNV) |
| **Zinegotziak** | **Concejales** |
| Agurtzane Mercader Ubillos (EAJ-PNV) | Agurtzane Mercader Ubillos (EAJ-PNV) |
| Ana Pozas Rodríguez (EAJ-PNV) | Ana Pozas Rodríguez (EAJ-PNV) |
| Eukeni Garmendia Martínez (EH Bildu) | Eukeni Garmendia Martínez (EH Bildu) |
| Hermenegildo González Morán (PSE-EE) | Hermenegildo González Morán (PSE-EE) |
| **Idazkaria** | **Secretaria:** |
| Idoia Arévalo Benito | Idoia Arévalo Benito |

Beharrezko quoruma gaindituta, eta Alkateak bilkurari hasiera emanda, gai-zerrendako puntuak aztertzeari ekin zaio.

Superado el quórum necesario y abierta la sesión por el Alcalde, se procede al análisis de los puntos del orden del día.

**Gai-zerrenda:**

1. Gaikuntza nazionala duten funtzionarioentzat gordetako lanpostuak (idazkari-lanpostua) betetzeko oinarri espezifikoak onartzeari buruzkoa 2023/651 Dekretuaren berri ematea.
2. Urnietako HAPOren HEE32-“BABILONIA” Hiri Antolamenduko Plan Partzialaren onarpena Esp 2023HORO0011

**Orden del día:**

1. Dar cuenta del Decreto nº 651/2023 sobre la Aaprobación de las bases específicas para la provisión de puestos de trabajo reservados a funcionarios con habilitación estatal (Puesto de Secretaria/o)..
2. Modificación del Plan Parcial para el desarrollo de AIU 32 “BABILONIA” del PGOU de Urnieta. Exp 2023HORO0011

**Gai-zerrendako gaien azterketa:**

**Examen de los asuntos incluidos en el orden del día:**

**1.-Gaikuntza nazionala duten funtzionarioentzat gordetako lanpostuak (idazkari-lanpostua) betetzeko oinarri espezifikoak onartzeari buru-**

**2.- Dar cuenta del Decreto nº 651/2023 sobre la Aaprobación de las bases específicas para la provisión de puestos de trabajo reservados a**

ESKU58298ff1-7658-4a55-a8b0-97f853883da8

Espte zk nº expte:
2023ITGB0007

**zkoa 2023/651 Dekretuaren berri ematea.**

Berri eman da.

**2.-Urnietako HAPOren HEE32-"BABILONIA" Hiri Antolamenduko Plan Partzialaren onarpena Esp 2023HORO0011**

******

Ikusirik ekimen pribatuko Urnietako HAPOren HEE-32-"BABILONIA" Plan Partzialaren aldaketa puntualaren dokumentua, Fiark Arquitectos, S.L.P. enpresak idatzia.

Ikusirik Udal 2023ko otsailaren 22an Udal Arkitekoak egindako aldeko txostena.

Kontutan izanda, Udal idazkariak txosten juridikoa eman zuela 2023ko maiatzaren 15ean, eta, horren bidez, sustatzaileari eskatu zion aurkeztutako dokumentua honela alda zezala:

"*-Eragingarritasun ekonomiko-finantzarioari buruzko azterlana aurkeztu beharko du, edo idatzi beharrik ez izatearen justifikazioa.*

*- Ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera eta ingurumen-ebaluazio estrategikoaren araudian aurreikusitakoaren arabera osatutako ingurumen-dokumentu estrategikoa aurkeztu beharko ditu.*

*2.- Ingurumen-organoari ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espedientea hasteko eskatu beharko zaio. "*

Kontutan izanda, dagokion errekerimendua egin ondoren, sustatzaileak, 2023ko maiatzaren 23an, eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuen Udalean, nahikotzat joz.

Ikusirik Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j artikuluaren arabera Planaren hasierako onarpena Alkateari dagokiola eta 2020ko urriaren ekainaren 25eko 968/2020 Dekretuaren bidez honek Tokiko Gobernu Batzarraren esku utzi zuela hasierako onarpen hori.

Ikusirik Antolakuntzako Batzorde Informatzialeak

**funcionarios con habilitación estatal (Puesto de Secretaria/o).**

Se da cuenta.

**2.-Modificación del Plan Parcial para el desarrollo de AIU 32 "BABILONIA" del PGOU de Urnieta. Exp 2023HORO0011**

******

Visto el documento de modificación puntual del Plan Parcial para el desarrollo de la AIU 32 BABILONIA del PGOU de Urnieta presentado por iniciativa privada y redactado por Fiark Arquitectos, S.L.P.

Visto el informe favorable de la Arquitecta Municipal de fecha 22 de febrero de 2023.

Considerando que la Secretaria Municipal emite con fecha 15 de mayo de 2023 informe jurídico a través del cual propone requerir al promotor la modificación del documento presentado en el sentido referido a continuación:

*"-Deberá presentar un Estudio de Viabilidad Eco-nómico-Financiera o la justificación de la innece-sariedad de redactarlo.*

*-Deberá presentar una solicitud de inicio de la evaluación ambiental estratégica, y el documento ambiental estratégico completado de acuerdo a lo previsto en la normativa de evaluación ambiental estratégica.*

*2.- Se deberá solicitar al órgano ambiental el inicio del expediente de evaluación ambiental es-tratégica."*

Considerando que tras la realización del requerimiento correspondiente, el promotor, con fecha 23 de mayo de 2023, presenta en el Ayuntamiento la documentación requerida, estimándose suficiente.

Visto que de conformidad con el artículo 21.1.j) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, la aprobación inicial del Plan corresponde al Alcalde y que mediante Decreto nº 968/2020, de 14 de octubre de 2020, este delegó dicha aprobación inicial en la Junta de Gobierno Local.

Visto el dictamen favorable de la Comisión

ESKU58298ff1-7658-4a55-a8b0-97f853883da8

2023ko uztailaren 19an egindako aldeko diktamena, Tokiko Gobernu Batzarrak gehiengo osoz ondorengoa

Informativa de Organización del 19 de julio de 2023, la Junta de Gobierno Local ha adoptado por mayoría absoluta el siguiente

**ERABAKI DU**

**Lehena.-** Hasierako izaeraz onartzea Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren BABILONIA 32 HJEa garatzeko Plan Partzialaren aldaketa puntuala, ekimen pribatu bidez aurkeztua eta Fiark Arquitectos SLPk idatzia, udal teknikarien txostenetan ezarritako baldintzekin.

**Bigarrena-.** Espedientea hogei egunez jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Lurralde Historikoan hedapen gehien duen egunkari batean argitaratuko diren ediktuen bidez, eta azken argitalpenetik kontatzen hasita. Era berean, Udaletxeko iragarki-taulan eta www.urnieta.eus udal webgunean ere argitaratuko da iragarkia.

Epe horretan, espedientea ikusgai egongo da Idazkaritzako Bulegoetan, jendaurreko arreta-ordutegian, 8:00etatik 14:00etara hain zuzen ere.

**Hirugarrena-.** Aipatutako Plan Partzialean jasotako zehaztapenek "Babilonia" 32. Hirigintzako Esku-hartze Eremurako indarrean dagoen hirigintza-araubidearen berrikuntza dakarte, eta, beraz, bidezkoa da era guztietako onarpen**, baimen eta lizentziak urtebeteko epean ematea etetea**, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 85. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Etendura azkendu egiten da hura hartzeko gehieneko epea igarotze hutsagatik, eta, nolanahi ere, izapidetzen ari den plana behin betiko onartzeagatik, hura lehenagokoa bada.

**Laugarrena.-** Erabakiaren berri ematea interesdunei eta Idazkaritzako, Kontuhartzailetzako eta Hirigintzako udal lan sailei.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, Alkateak bilkura bukatutzat eman du arratsaldeko zazpiak laurden gutxietan. Horri buruzko akta hau egin da, eta nik, Urnietako Udaleko idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

**ACUERDO**

**Primero.-** Aprobar inicialmente la modificación puntual del Plan Parcial para el desarrollo de la AIU 32 BABILONIA del PGOU de Urnieta presentado por iniciativa privada y redactado por Fiark Arquitectos, S.L.P., con las condiciones señaladas en los informes de los servicios técnicos municipales.

**Segundo.**- Someter el expediente a trámite de información pública por plazo de veinte días, mediante edictos que se publicarán en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en uno de los periódicos de mayor difusión del Territorio Histórico, y a contar a partir de la última publicación. Asimismo, el anuncio se publicará en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y en la web municipal www.urnieta.eus.

Durante dicho plazo el expediente estará de manifiesto en las Oficinas de Secretaría, en horario de atención al público de 8:00 a 14:00 horas.

**Tercero.-** Las determinaciones que se contienen en el referido Plan Parcial suponen una innovación del régimen urbanístico vigente para el Área de Intervención Urbanística 32 “Babilonia”, por lo cual **procede suspender el otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias**, conforme a lo dispuesto en el artículo 85 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, por el plazo de un año.

La suspensión se extingue por el mero transcurso del plazo máximo para el que haya sido adoptada y, en todo caso, con la aprobación definitiva del plan en tramitación, si ésta fuera anterior.

**Cuarto.-** Dar traslado de este acuerdo a los interesados, y a los departamentos municipales de Secretaría, Intervención y Urbanismo.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde da por finalizada la sesión a las siete menos cuarto de la tarde, de la que se levanta la presente acta, de cuyo contenido yo, Secretaria del Ayuntamiento Urnieta, doy fe.

ESKU58298ff1-7658-4a55-a8b0-97f853883da8

**Espte zk** nº expte**:**
**2023ITGB0007**

Jorge Segurado Iriondo, Alkatea / Alcalde.

Idoya Arévalo Benito, Idazkaria / Secretaria.

San Juan, 5 - 20130 Urnieta Gipuzkoa - P2007700D 943 008 000 943 008 037 urnietakoudala@urnieta.eus urnieta.eus

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU58298ff1-7658-4a55-a8b0-97f853883da8**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07210*
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07210*